



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2025/20

Ediziorako laguntzen 2025eko deialdia, irabazi asmorik gabeko entitateei zuzendutakoa

Deialdi honen xedea da deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, bete dadin Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak onetsi zuen ordenantza hori 2005eko azaroaren 3an, hasiera batez hartutako erabakiaren bidez –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuelako–. **Deialdi honetan arautu gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAO n argitaratua, otsailaren 17koan\).](#)

Iruñeko Udalaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat kultura sustatzea eta hedatzea da, eta Udalaren argitalpen zientifiko eta dibulgaziokoak argitara ematea. Plan horrek dirulaguntza-lerro espezifiko bat jasotzen du 3. ildo estrategikoan (Kultura): ediziorako laguntzen deialdi bat. Beraz, deialdi hau bat dator, erabat, Plan Estrategikoak ezartzen dituen helburu, eremu eta oinarritzko ildoekin.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdiak xede du laguntza ekonomikoa ematea irabazi-asmorik gabeko entitateei Iruñearekin, haren kulturarekin, folklorearekin, pertsonaiekin eta historiarekin lotutako liburuak edo aldizkariak argitaratzeko, bai euskarri tradizionalen (papera) bai euskarri elektronikoan. Lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute, faksimileak, euskarazko zein gaztelaniazko lehen itzulpenak, edo agortutako jatorrizko liburuen berrinprimatzeak (baldin eta azken inprimatzea duela hamar urte baino gehiago egin bazen, edukien % 15, gutxienez ere, berriak badira eta maketa zein ISBNa berriak badira).
2. Deialdiaren helburua: Deialdiaren helburua da sustatzea Iruñearekin, haren kulturarekin, folklorearekin, pertsonaiekin eta historiarekin harreman zuzena duten argitalpenak (liburuak edo aldizkariak) sortzea eta editatzea, eta udalerriaren nortasuna bultzatzea eta Iruñeko kultura sustatzen laguntzea, edozein ikuspegitik: historikoa, lurraldekoa, soziala, etab.
3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Betebeharrak eta baldintzak: - Argitalpenek (liburuak edo aldizkariak) harreman zuzena izatea Iruñearekin, haren kulturarekin, folklorearekin, pertsonaiekin eta historiarekin, eta udalerriaren nortasuna bultzatzea eta Iruñeko kultura sustatzen laguntzea, edozein ikuspegitik: historikoa, lurraldekoa, soziala, etab. - Iruñeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan onartuko dira lanak. - Lanak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) argitaratu behar dira. Edizio



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

gastuak ere epe horren barruan fakturatu behar dira, behar bezala fakturatu ere. Abenduaren 1etik aurrera argitaratzeko asmoa duten erakundeek bertsio elektronikoa bat aurkeztu behar dute egun hori baino lehen, dirulaguntza erraz eman eta haren justifikazioa bizkortzeko.

- Paperean eta euskarri digitalean aldi berean argitaratzen diren lanak eskaera bateratu bakar batean aurkeztuko dira. Kasu horretan dirulaguntza jaso dezaketen gastu gisa sartu ahal izanen dira bi formatuekin zerikusia dutenak.

Honako hauek kanpo geratuko dira:

- Kultura- edo eskola-buletinak, gida didaktikoak, ikuskizun-gidak, urtekariak, auzo-aldizkariak, katalogoak edo antzekoak.

- Edozein entitate publikok eta haren erakunde autonomoek eskatutako argitalpenak.

- Publizitatea duten argitalpenak, baldin publizitate horrek hartzen badu, batez beste, urteko zenbaki guztien espazioaren % 30 baino gehiago.

- Eranskin, ezohiko ale edo beste argitalpen batekin batera banatzen diren argitalpenak.

- Aldizkakotasun egonkorrik ez duten aldizkako argitalpenak.

- Web-orriak.

- Egileak eta haien lanak sustatzera bideratutako argitalpenak, balorazio-batzordearen iritziz.

- Erakusketen katalogoak.

- Batzordearen iritziz, objektu kultural bat sortzeko erabiltzen diren materialei eta baliabide teknikoei buruzkoak direnak nagusiki, edo gehienbat kultur jardueraren sektore bakoitzeko profesionalen berezko aferei buruzkoak direnak.

- Argitaratuta dauden lanen berrinprimatzeak, berrargitalpenak eta itzulpenak.

- Dagoeneko argitaratu diren testuen bildumak.

- Deialdi honetatik kanpo geratuko dira adimen artifizial sortzaileko teknikak erabiliz osotara edo hein batean sortutako proiektuak. Instrukzio-organoak egiaztatzen ahalko du, beharrezkoak diren tresnak erabilita, proiektuak adimen artifizial sortzailearen bitartez eginak diren edo ez.

Entitate eskatzaile bakoitzak PROIEKTU BAKARRA aurkezten ahalko du.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 10.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa agortzen bada eta ez baldin badira gauzatu 2025. urteko aldi honetarako Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak adierazitako beste jardueretako batzuk, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira. Kasu horretan, soberako dirua esleituko da, baldin eta nahikoa izan ez bada aurkeztutako eskaera guztiak betetzeko.

Ezin izanen da deialdi honetan ezarritako zenbatekoa gainditzen duten dirulaguntzarik eman.

2. Aurrekontu-partida: 50/33401/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: proiektu bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere onartutako aurrekontuaren % 70 baino gehiago izanen, eta gehienez ere 3.000 € proiektu bakoitzeko.

Onartutako aurrekontua honela kalkulatu da: entitateak aurkeztutako aurrekontua ken diruz lagundu ezin diren gastuen zenbatekoak.

Baldin entitate onuradunetako batek laguntzari uko egiten badio, laguntza hori banatu ahal izanen da, proportzionalki, eskatutako gutxieneko puntuazioak lortu dituzten proiektu guztien artean, oinarri hauetan ezarritako ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa errespetatuz.

Eskaera bakoitzaren puntuazioaren gainean balorazioa egin eta gero, eta laguntzen zenbatekoa zehazte aldera, honako hau aplikatu da: guztizko aurrekontua zatituko da dirulaguntza jasotzeko eskatzen ahal den gutxieneko puntu kopurua gainditu duten entitate onuradunek lortutako puntu guztien artean. Ateratzen den balioa (A) onuradun bakoitzaren puntuekin (B) biderkatuko da, eta emaitza eman beharreko dirulaguntza izanen da.

Hau da, formula honi jarraituko zaio:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzaren aurrekontua

----- = euro puntu bakoitzeko (A)

Entitate onuradunek erdietsitako puntuak guztira

A * B = Entitate bakoitzaren dirulaguntza.

Baldin entitate bati eskatu duena baino zenbateko handiagoa egokitu bazaio, edo dagokion laguntza onartutako aurrekontuaren (hots, diruz lagun daitekeen gehienekoaren) % 70 baino handiagoa bada, zenbateko hori taldeko gainontzeko entitateen artean banatuko da, modu ekitatiboan.

Proiektu bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa % 70 da, 3.000 € gehienez ere.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdietan, dagokion aurrekontuan ekitaldi bakoitzerako zer kreditu esleitu den, kreditu horren menpe izanen dira urte anitzeko gastuak baimentzeko eta konprometitzeko aukera.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	10.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntzaren onuradun izaten ahalko dira dirulaguntza emateko oinarrian adierazten den egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta jarraian adierazitako inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-kasuren batean ez badago; eta non eta, dirulaguntzaren izaera dela-eta, interesduna azken baldintza hori bete behar izatetik salbuesten ez den; kasu horretan, hala adierazi beharko da apartatu honetan.

Berariazko baldintzak: ☒ BAI ☐ EZ

- Irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea, eta haren estatutuetan jasota egotea erakundearen helburua kulturala dela.

- Legearekin bat eraturik egotea deialdi hau NAO-n argitaratu baino urtebete lehenagotik.

- Espainian edukitzea egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.

- Eguneratuak izatea Iruñeko Udalarekiko tributu-betebeharrak; hori Iruñeko Udalak ofizios egiaztatuko du, eta dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, Udalak ofizios egiaztatuko du ez dutela Udaleko Diruzaintzari diru-kopururik ordaintzeke.

- Zergen arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea, egunean.

- Ez izatea justifikatzeke Udal honek aldeztu aurretik eman eta justifikazio-epea amaituta duen dirulaguntzarik. Debeku hori automatikoki aintzat hartuko da, eta justifikaziorik ez dagoen bitartean iraunen du.

Berariaz honako hauek kanpo geratuko dira:

- Toki entitateak, haien erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak.

- Nagusiki Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateen partaidetza duten partaidetzapeko sozietate publikoak eta fundazioak.

- Sindikatuak eta udal-entitate korporatiboak.

- Iruñeko Udalaren 2025eko aurrekontuetan deialdi honen xede diren proiektuak egiteko partida izenduna duten entitateak.

Dirulaguntzaren izaera berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako baldintzak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ



2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko baldintzak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren betebeharra dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharra:

☒ BAI ☐ EZ

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea diruz lagundutako proiektuak sustatzeko egiten diren kartel, testu, agiri eta gainerako euskarrien edukietan, eta Berdintasuneko Ordenantzak jasotako betebeharra betetzea.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunek hamar eguneko epea izanen dute, Iruñeko Udalak eskatu ondotik, beharrezkoa duen informazio guztia hari emateko, bete ditzan aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan adierazitako betebeharra.

Euskararen erabilerari dagokionez, Iruñeko Udaleko Euskararen Ordenantzak ezarritakoa aintzat hartu beharko da.

Lanak dirulaguntza jaso duela aipatzea, argitalpenean honako erreferentzia hau jarrita: "Lan honek Iruñeko Udalaren dirulaguntza bat izan du, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak egiten duen Argitalpenetarako Laguntzen deialdiaren bidez emana. / Esta obra ha contado con una subvención del Ayuntamiento de Pamplona concedida a través de la convocatoria de Ayudas a la Edición del Área de Cultura e Igualdad", eta horrekin batera Iruñeko Udalaren logotipo ofiziala.

Logotipoa eta hura erreproduzitzeko jarraibideak webgune honetan eskuratuko dira: <https://www.pamplona.es/eu/logotipo-del-ayuntamiento-de-pamplona>. Dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik argitaratutako proiektuek betebehar hori bete beharko dute, eta eranskailu bat gehitu beharko diete oraindik beren esku dauden argitalpenei.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezala publizitatu eta hedatu behar dute udalak publikoki finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

(liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenaren neurri berekoa izanen da, gutxienez ere.

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzeko beste edozein gauza edo produktuetan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Baldin betebehar hori betetzen ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Proiektuaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera jakinaraziko da gorabehera gertatzen den unean bertan, baldin eta proiektuan aldaketarik eragiten badu.

Diruz lagundutako proiektuaren edozein aldaketak Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorraren onspena izan beharko du aldez aurretik, eta onspena emanen da baldin eta ebaluazio-batzordearen iritziz aldaketa horrek aurkeztutako proiektua funtsean aldatzen ez badu.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematika bidez aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskabide elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez. Interesdunak sinatuta aurkeztu beharko dira edo, bestela ere, dirulaguntza eskatzeko nahikoa ordezkapen duen eta ordezkapen horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere bat etorrita "Dirulaguntzen eskabide elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidean adierazitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Entitate bakoitzak eskabide bakar bat aurkeztuko du, honako eranskin hauek izanen dituen: "Finantzaketa-plana".



Proiektuak bat etorri beharko du deialdi honen oinarrietan adierazitako printzipio eta lehentasunekin eta horietan adierazitako kasuren batean jasota egon beharko du. Gerta daiteke proiektu bat egokiagoa izatea Iruñeko Udalaren beste laguntza bat jasotzeko. Horrelakoetan, proiektua beste deialdi horretara bideratuko da.

Proiektuak behar bezain garaturik egon beharko du, eta haren helburuei buruzko informazioa eta baliabideak behar bezala justifikaturik.

.

Ez da beharrezkoa izan deialdi honetako G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea baldin eta, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin, jarduten duen Administrazioak jada bere esku baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskabide batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izan hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez denean Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritakoarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria bat (3 orrialde gehienez), honako hauek jasotzen dituenak:

- Edukiaren sinopsia eta Iruñearekin duen lotura.
- Hedapen-plana. Proiektuaren sustapen-, komunikazio- eta publizitate-jarduerak zehaztuta.
- Egileen curriculum laburra.

g) II. ERANSKINA. Finantzaketa-plana. Jardueragatik sortutako kostuetan eta hura finantzatzeko diru-sarreretan BEZa bereiziko da, salbu eta BEZa berreskura dezaketen erakundeek kasuan. Horrelakoetan, Nafarroako Zerga Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinetan ziurtatzen baita erakundeak ez duela BEZ aitorpenik egin behar edo hura egitetik salbuetsita dagoela.

Diru-sarrerei dagokienez, horien jatorria, zenbatekoa eta kontzeptua adieraziko dira (esaterako, publizitate bidez lortutakoak).

h) Argitalpenaren aurkibidea eta argitalpena osorik, edo, gutxienez, kapitulu bat, edizio-egoera ahalik eta aurreratuenean eskaera aurkezteko unean.

.

Modu telematikoa egiten ez diren izapideetan, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoa egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatutakoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Entitate-eskatzailearen ibilbidea (10 puntu bitarte).

a) Entitatearen jarduera-urte osoak (5 puntu bitarte).

- i. 10 urte baino gehiago 5 puntu.
- ii. 7 - 10 urte..... 3 puntu.
- iii. 4 - 6 urte..... 2 puntu.
- iv. 1 - 3 urte 1 puntu.

b) Entitatearen lurralde-eremua edo lurraldearekiko garrantzia (5 puntu bitarte)

2. Proiektuaren balorazioa (90 puntu bitarte):



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

a) Argitalpenaren kalitatea eta interesa (gehienez ere, 50 puntu). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Obraren kalitatea (30 puntu bitarte).

i. Edukien antolamendua, maketazioa, koadernaketa eta inprimatzea (20 puntu bitarte).

ii. Ilustrazioak, argazkiak edo material grafikoa sartzea (10 puntu bitarte).

- Obraren interesa (20 puntu bitarte).

i. Berrikuntza. Argitalpenaren edo proposatutako gaiaren izaera berritzailea (10 puntu bitarte).

ii. Orijinaltasuna (5 puntu bitarte).

iii. Sormena ideia garatzean (5 puntu bitarte).

b) Iruñearekiko lotura (20 puntu bitarte). Obrak hiriaren errealitate kulturalarekin, sozialarekin eta linguistikoarekin duen lotura baloratuko da, bai eta hura hedatzeko eta ezagutarazteko egiten duen ekarpena ere.

c) Aurrez hasitako argitalpen sorta baten jarraipena: aurkeztutako obra aurrez argitaratutako beste baten edo batzuen jarraipena izan beharko da. (5 puntu bitarte).

d) Genero-estereotipoak hausten dituzten eta berdintasuna sustatzen duten edukiak sartzea (10 puntu bitarte). Baloratuko da hizkera berdinzalea erabiltzea, non emakumeak eta gizonak, edozein sexu-identitate eta -orientazio dutela ere, ordezkatura sentituko baitira; edukiak genero-rolak aldatzen laguntzea, eta proiektuan emakumeek parte hartzea.

e) Euskararen presentzia (5 puntu bitarte).

Inolaz ere ez dute laguntzarik jasoko 2. apartatuan gutxienez puntuazioaren % 50 lortu ez duten proiektuek. "Proiektuaren balorazioa" (45 puntu).

Bete ez diren edo oker bete diren datuak edo zuhurtziagabekoak izan daitezkeenak baloraziotik kanpo utziko dira.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Maider Beloki Unzu, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria / Beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Íñigo Gómez Eguiluz, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria/ Beste alor bateko zuzendari bat.
2.	Uxue Pellejero López, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko teknikaria / Alor bereko beste teknikari bat.
3.	José Luis Mosquera Sande, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko teknikaria / Alor bereko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Aitor Olaetxea Mikeo, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko administraria / Alor bereko beste administrari bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organismoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egiten du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsona eta entitateek betetzen dituztela dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak. Espedientea balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

honen H) apartatuan xedatu diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espediente eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Balorazio-batzordeak azalpenak eskatzen ahalko ditu emandako informazioari eta agiriei buruz.
BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Esleipendunei banan-banan jakinaraziko zaie entitate dirulaguntzak emateko behin-behineko ebazpen-proposamena, BOST egun naturaleko epean ebazpena onartzen dutela berrets dezaten. (III. ERANSKINA. DIRULAGUNTZAREN BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN-PROPOSAMENA ONARTZEA).

Ebazpen-proposamena onartzen duten entitateek III. eranskinarekin batera IV. ERANSKINA (GARDENTASUNA) eta V. ERANSKINA (AZPIKONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA) aurkeztu beharko dute onuradun izan ahal izateko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: SEI HILABETE.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntza jasoko duten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzaren zenbatekoa eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, bat etorrita urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☒ BAI ☐ EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren Egoitza elektronikoa.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikuluko ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

- Argitalpenaren ekoizpenari dagozkion gastuak, argitaratzeko beharrezkoak diren prozesu guztiak barne hartuta:

azalaren eta barrualdearen diseinua eta maketazioa, ilustrazioa, argazkiak eta irudien tratamendua (formatu edo bereizmenak bihurtzea, digitalizatzea, ukituak egitea eta garbitzea) eta itzulpen zerbitzua.

- Egile-eskubideak (SGAE, etab.).

- Argitalpenak inprimatzea.

- Argitalpen digitaleko plataformekin kudeatzea.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da egiazki ordaindu dena deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira, inola ere ez, gastu diruz lagungarritzat hartuko:

- Bidalketa-, biltegiatze-, alokairu-, ekipamendu-, banaketa-, sustapen- eta komunikazio-gastuak, langileria-gastuez gain.

- Proiektua garatzeko aski beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta haien zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.

- Entitateak berreskuratzen ahal duen balio erantsiaren gaineko zerga.

- Ostatu hartzeak eragindako gastuak, bidaiak eta dietak.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 20ra bitarte egindako gastuak (bi egun horiek barne).

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: 100%

Baldin erakunde onuradunak aurreikusten badu hirugarrenak azpikontratatu dituela jardueraren zati bat (adierazitako ehuneko bat) gauzatzeko, berariaz adierazi beharko du dirulaguntza-proiektuaren eskaera-dokumentazioan.

Azpikontratatuak enpresak edo erakundeak lankidetzaren betebeharrari lotuta egon behar dira gastu diruz lagungarrien izaerari eta zenbatekoari dagokienez deialdi honetan ezarritako mugak betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (DOO) 30.6 artikuluekin bat.

Entitate onuradunak inola ere ezin izanen du hitzartu dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin egitea.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Azpikontrataturako enpresak edo erakundeak aurreko apartatuan (V. eranskina) deskribaturako kasu bakar batean ere ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena aurkeztu beharko du.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko gisa.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lotura dagoela ulertuko da inguruabar hauetako bat betetzen duten pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin:

a) Honelako harremanen bat duten pertsona fisikoak: ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanez lotuta daudenak, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna.

b) Aldizkako ordainketen bidez ordaindutako lan-harremana duten pertsona fisiko eta juridikoak.

c) 2. apartatuan aipatzen den onuradunaren kide elkartuak izatea eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 11. artikuluen 3. apartatuan aipaturako nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kide edo partaideak izatea.

d) Sozietate bat eta bere bazkide nagusiak edo horien kontseilari edo administratzaileak, baita ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunezko ahaideak ere.

e) Balore Merkatura arautzen duen uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluen arabera, talde bereko kide izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten sozietateak.

f) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko elkarteak eta horien legezko ordezkariak, ugazabak edo administrazioan dihardutenak, bai eta ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunezko ahaideak ere.

g) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak eta pertsona fisikoak, baldin eta legezko arauen, estatutuen edo kontratu-akordioen arabera lehenengoen mozkiean % 50etik gora parte hartzeko eskubidea badute.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa edo zenbatekoa adierazi beharra dago: gutxienez aurrekontu onartuaren % 30 izan behar du, oinarri hauetako C.3 puntuan jasotakoarekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Aurrekoa gorabehera, bateraezina izanen da proiektu bera Iruñeko Udalaren deialdi batean baino gehiagotan aurkeztea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☐ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Oro har, diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa egingen da, baina, dirulaguntzen entitate adjudikaziodunek proposatutako jarduerak egitea errazte aldera, eta dena delako entitatea dirulaguntza honen azkeneko bi deialdietara aurkeztu bada eta dirulaguntzarik jaso eta hori oso-osorik justifikatu badu, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 33. artikuluekin bat, honela ordaintzeko aginduko da: % 50 deialdia ebazten den unean bertan, eta gainerako % 50a aurrekontua justifikatutakoan.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik zerga betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapiderearen bitartez egin behar da: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. Egindako argitalpenaren ale fisiko bat (dirulaguntza hau kudeatzen duen alorraren egoitzan entregatu beharrekoa, Descalzos kaleko 72ko 2. solairuan), edo digitala izanez gero, PDF bat.

2. Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data.

3. Egindako GASTUEN eta ORDAINKETEN fakturak edo froga-balioa duten agiriak aurkeztuko dira, bai eta dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko egindako benetako ordainketen egiaztagiria ere.

4. Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak (publizitatea) edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne. Lortutako diru-sarreraren froga-balioa duten agiriak aurkeztuko dira.

5. VI. ERANSKINA. Aurkeztutako datu eta agirien egiazkotasunaren adierazpena.

6. VII. ERANSKINA. Memoria ekonomikoa.

7. Hala baldin badagokio, Nafarroako Zerga Ogasunak emandako ziurtagiria, zeinetan ziurtatzen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

baita ez duela BEZ aitortpenik egin beharrik edo hura egin behar izatetik salbuetsita dagoela.

Txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epea honako hau da: 2025eko abenduaren 31.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai eta berandutze-interesak galdatzea ere – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:



--

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. OBRAREN DATUAK
☒ II. ERANSKINA. FINANTZAKETA-PLANA
☒ III. ERANSKINA. BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN-PROPOSAMENA ONARTZEA
☒ ERANSKIN OSAGARRIAK. - IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ - V. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ZEINETAN ESKATZAILEAK ADIERAZTEN BAITU BETETZEN DITUELA DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORREAN EXIJITUTAKO AZPIKONTRATATZE-BALDINTZAK - VI. ERANSKINA. AURKEZTUTAKO DATUEN ETA AGIRIEN EGIAZKOTASUNAREN ADIERAZPENA - VII. ERANSKINA. MEMORIA EKONOMIKOA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*